

ESPAINIAKO JUAN CARLOS ERREGEAREN BERBEKIN INAUGURATU ZUTEN ATZO ILUNTZEAN GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Agintari politikoek ekitaldiarekin zabaldu dute arte museoa

■ Guggenheim Bilbao Museoa inauguratuta gelditu da atzoko ekitaldiaren ostean. Espainiako Erregeak inauguratu zuen erakustoki erraldoia, euskal erakundeetako buruak zein Solomon R. Guggenheim Foundationekoak lagun zituela. Ondoren 800 gonbidatuk afaria izan zuten bertan. Gaurtik aurrera guztiontzako irekiko dute takila.

Montse Arregi / Bilbo

ATZO arratsaldeko 20:30etan zabalik gelditu zen ofizialki Guggenheim museoa. «Inauguratu-tzat ematen dut Guggenheim Bilbao Museoa» hitzekin agindu zuen irekiera ofiziala Espainiako Juan Carlos Erregeak, beste ezer esan gabe. Ondoren, ahoz nahiz urruneko kontrolaren bitartez, museoako argi guztiak pizteko agindua eman zuen.

Erregea baino lehenago, Thomas Krens Solomon R. Guggenheim Foundationeko zuzendaria, Jose Antonio Ardanza lehendakariak eta Josu Bergara Bizkaiko diputatuak egin zuten berba inaugurazio ekitaldian.

Krensek «hau zuen museoa da eta irekita dago denontzat» esan zuen euskaraz bere hitzaldiaren hasieran. Euskal agintariak, beren aldetik, Jose Maria Agirre ertzain zena oroitu zuten euskaraz eta espainolez egindako berbaldietan.

Ardanza lehendakariak «labe garai zaharkituak ordezkatu dituen Bizkaiko Altxairutegi Trinkoarekin» alderatu zuen Guggenheim Bilbao Museoa bere berbaldietan. «Bi gertaerok esanahi bera dute funtsean, jomuga eta kemen berberaz dihardugula erakusten ari baikatzaizkio geure buruari eta mundu osoari», adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako buruak.

Konfidantza mezua • Guggenheim Bilbao Museoa euskal herritarrentzat «geure buruarengan konfidantza izateko mezua» dela deritzo, «berrikuntzarako eta eraberriketarako ahalmena, iraganeko traumak gainditzeko borondatea eta etorkizunera doan bidera berriz itzultzeko gaitasuna dugulako». Gainontzean, munduari begira «irekiera eta unibertsaltasun mezua» litzateke, EAEko gobernuburuaren esanetan.

Hitzaldia bukatzean eskerrak eman zizkien Ardanzak Frank Gehry Bilboko museoaren arkitektoari eta proiektuan bazkide duen Solomon R. Guggenheim Foundationi.

Josu Bergara Bizkaiko diputatu nagusi eta Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioako buruaren hitzetan, «museoari esker Bizkaia, Bilbo eta Euskadik nazioartean oihartzun positiboa» izan dute. «Irudi mailako aparteko kanpaina» iruditu zaio Guggenheim diputatuari.

«Ziur gaude proiektuaren fun-



Agintari politiko ugari bildu zen atzo Guggenheim museoan, inaugurazio ekitaldi ofizialean. Gonbidatuak bederatziehun lagun inguru ziren. XOUSE SIMAL - JOSEBA OLALDE



tsa izan diren lau xedeak eskuratuko ditugula: industri arloko krisi ekonomikoa gainditzea eta sare ekonomiko berria garatzea; euskal gizarteari erreferentzia kulturala eskaintzea; Bilbo hiriarren birsorkuntza; eta sinergia horiek guztiak aprobetxatuz, Euskadi osoaren bihotz industrial, sozial eta ekonomikoaren modernizazio metropoliarrari ekiteto politika orobiltzailea», esan zuen.

Ardanzak eta Bergarak, esan

bezala, gorazarre hitzak zuzendu zituzten aste honetan hildako ertainarentzat, «bere bizitzarekin geure bizitzak babestu dituelako eta bere sakrifizioarekin museo hau geure askatasun sinboloa izatera eraman duelako».

Inaugurazio hamabostaldia atzoko ekitaldiarekin amaitu zen. Gaurtik aurrera Guggenheim Bilbao Museoa sartzeko aukera izango du takilatik pasatuko den edonork. Sarrera arruntak 700 pezeta balio ditu, 28 libera.

Agintarien gaua

G. Agirre / Bilbo Guggenheim Bilbao museoaren inaugurazio ekitaldi ofiziala agintarien gaua bihurtu zen. Halaber, Espainiako Errege-Erreginak eta Eusko Jaurlaritzako, Madrilgo Gobernu eta Bizkaiko Diputazioko agintariak izan ziren ilunabarreko izarrak.

Titantozko untziaren inguruak jendez gainezka izan ziren arratsaldeko lehen orduetatik, sarri ikusten ez diren pertsona inportanteak ikusi nahian. Arratsaldeko 19:00etan hasi ziren aukerako taldea osatzen zuten lehenengo gonbidatuak heltzen, amerikarrak alegia.

Apurk-apurka aurpegi eza-gunak heltzen hasi ziren Museoaren ingurura: hain zuzen, Jose Ignacio Vidarte Guggenheim Bilbao Museoko zuzendaria; Josu Bergara Bizkaiko diputatu nagusia; Josu Ortuondo Bilboko alkatea; Juan Maria Atutxa, Inaxio Oliveri, Rosa Diez, Patxi Ormazabal eta Mari Karmen Garmendia sailburuak; azken asteetan zer esan eta zer idatzi ugari eman duten Iñaki Urdangarinen gurasoak; Joseba

Leizaola Eusko Legebiltzarreko lehendakaria...

Frank Gehry arkitektoa izan zen inguruan bildutako jendearen txalorik beroenak jaso zituen gonbidatua. Ostera, Thomas Krens Guggenheim Fundazioko zuzendaria harrera apalagoa jaso zuen.

Gonbidatu ia gehienak helduak zirenean, arratseko 19,30ak aldera heldu ziren Jose Antonio Ardanza eta Gloria Urteaga bere emaztea. Handik gutxira Esperanza Agirre Madrilgo Kultura eta Hezkuntza Ministroa agertu zen, bera izan zen Jose Maria Aznarren Gobernuaren ordezkari bakarra.

Espainiako Errege-Erreginarren zain izan ziren bitartean Ardanza lehendakariak adierazpenak egiteko aukera izan zuen. «Pozik eta arto nago batez ere, herri oso bat honen aldeko bihurtu delako», adierazi zuen. Arratsaldeko 20.00etan, eta segurtasun neurri zorrotzen artean, heldu ziren Erregeak. Museoaren atarian argazki ofiziala egin ostean, titantozko untziaren barrena galdu ziren. X